

# **UDALAREN OSOKO BILKURA**

## **2011ko ekainaren 2ko ohiko bilera**

Leioako udaletxean, bi mila eta hamaikako ekainaren biko arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da. **Alkate-**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JAUNA

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV- JESÚS BILBAO CURIEL JAUNA

EAJ-PNV- AINARA URBIETA BERGARA ANDREA

EAJ-PNV- BEATRIZ RESA BARDECI ANDREA

EAJ-PNV- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JAUNA

EAJ-PNV- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ ANDREA

EAJ-PNV- JON PELI LAZKANO ALZAGA JAUNA

EAJ-PNV- JUAN C. IBARRA ARETXABAETA JAUNA

EAJ-PNV- AINARA GUZMAN URRUTIA ANDREA

PSE-EE- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JAUNA

PSE-EE- PILAR GRADOS GARCIA ANDREA

PSE-EE- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JAUNA

PSE-EE- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ ANDREA

PSE-EE- JUAN C. MARTINEZ LLAMAZARES JAUNA

PP- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JAUNA

PP- ARTURO ALDECOA RUIZ JAUNA

PP- FERNANDO PINTO PALACIOS JAUNA

EB-B.- IÑAKI GOMENDIORRUTIA SAINZ JAUNA

EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA ANDREA

**udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bilerako burua. Harekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran, eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. **Behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu die. Bertaratuak bildu dira ohiko bilera egiteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Alkate-buruak alde aurretik egin die bileran parte hartzeko deialdia, aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoarekin, eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du. Jarraian, ohiko bilera honen gai-zerrendan agertzen diren gaiak aztertzeari ekin diote:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- AUTOMATIKOKI INDARREAN SARTZEN DIREN ZERGA-ORDENANTZEN ALDAKETA ETA 2011KO BESTE TARIFA BATZUK:** Ogasunaren, Ondarearen eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 85. zenbakidun irizpena jakinarazi zaio Udalaren Osoko Bilkurari, hori berrets dezan. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

### **AUTOMATIKOKI INDARREAN SARTZEN DIREN ZERGA-ORDENANTZAK:**

2011rako zergen arloko neurriak onartu dituen abenduaren 22ko 4/2010 Foru Arauak aldatu zuen 9. artikuluan Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena, mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako, eta honela geratu da:

#### **1. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga**

### **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

#### **4. artikulua**

e) idatz-zatia aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

“e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga-zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten arte aplikatuko da, eta aplikatu ere ezinduek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a') %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta duten eta mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira desgaitasun-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak, eta baremo horretarako D, E, F, G edo H letran zazpi puntu edo gehiago dituztenak.
- b') %65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoan A letrako mugitzeko ezintasun-egoeran daudenei ez zaie aplikatuko 14 zerga-zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

## **2. Pinosolo Kirolgunea. Complejo Deportivo Pinosolo**

**Leioa Kirolak SAUko Kontseiluak** 2011ko maiatzaren 20an egin zuen bileran onetsi zuen Pinosolo Kirolgunea erabiltzen dutenek ordaindu beharreko tarifen proposamena. Honako hau da proposamena:

TARIFAS 2011 – 2011ko TARIFAK

ENTRADAS PISCINAS EXTERIORES	€	KANPOKO IGERILEKUAREN SARRERAK
<b>Personas abonadas</b>	GRATUITO DOHAIN	<b>Abonatuak</b>
<b>Personas no abonadas</b>		<b>Ez Abonatuak</b>
Individual Empadronado menores de 18 años	2,00 €	Banakakoa Erroldatua 18 urtetik beherakoa
Individual Empadronado mayores de 18 años	3,00 €	Banakakoa Erroldatua 18 urtetik gorakoa
Individual NO Empadronado menores de 18 años	4,00 €	Banakakoa EZ Erroldatua 18 urtetik beherakoa
Individual NO Empadronado mayores de 18 años	5,00 €	Banakakoa EZ Erroldatua 18 urtetik gorakoa
Jubilado/a Empadronado	2,00 €	Erretiratuta Erroldatua
Jubilado/a NO Empadronado	3,00 €	Erretiratuta EZ Erroldatua

**En el supuesto de que, una vez abandonadas las instalaciones, se desee volver a hacer uso de las mismas, se deberá abonar nuevamente el precio establecido.**

**Behin instalazioetatik irtenda, beroriek ostera ere erabili nahi izanez gero, ezarritako prezioa ordaindu beharko da berriro.**

SERVICIOS	€	ZERBITZUAK
Alquiler de hamacas	2,00 €	Etzaulkien alokairua
Extravío o pérdida de carnet	5,00 €	Karneta berritzea
Venta de candados	5,00 €	Giltzarrapoa salgai

KANPOKO IGERILEKUAREN ABONAMENDU-MOTA	UDA OSORAKO ABONAMENDU A	HILEKO ABONAMENDU A Egutegiko hilabetea
Familia, Leioan erroldatuak + Sakonetako bazkideak	50,00 euro.	30,00 euro.
Familia, Leioan erroldatuak + Sakonetako bazkideak EZ direnak	90,00 euro.	50,00 euro.
Familia, Leioan EZ erroldatuak	120,00 euro.	60,00 euro.
Banakakoa + Leioan erroldatua + Sakonetako bazkidea + 18 urtetik beherakoa	30,00 euro.	15,00 euro.
Banakakoa + Leioan erroldatua + Sakonetako bazkidea EZ dena + 18 urtetik beherakoa	40,00€	20,00 euro.
Banakakoa + Leioan EZ erroldatua + 18 urtetik beherakoa	50,00 euro.	25,00 euro.
Banakakoa + Leioan erroldatua + Sakonetako bazkidea + 18 urtetik gorakoa	40,00 euro.	20,00 euro.
Banakakoa + Leioan erroldatua + Sakonetako bazkidea EZ dena + 18 urtetik gorakoa	45,00 euro.	25,00 euro.
Banakakoa + Leioan EZ erroldatua + 18 urtetik gorakoa	50,00 euro.	30,00 euro.

Bazkide-karnet bakoitzeko	3,00 euro.	3,00 euro.
Familia-bazkideak izango dira, ezkontideek eta 26 urtetik beherako seme-alabek osatzen duten familia-unitateak. Erroldatutakoentzako familia-abonamenduen kasuan, titular biek egon beharko dute erroldatuta.		
Leioa udalerrian lan egiten duten pertsonak erroldatutzat hartuko dira sailkapenean.		
Udako abonamendurako tarifa kontu korrante edo abonu-agiri bidez ordain daiteke.		
Hilabeteko abonamendurako tarifa abonu-agiri bidez kobratuko da beti		
Txartela egiteagatiko gastuak esku-dirutan ordaindu beharko dira		

ENTRADAS PADEL / TENIS	€	PADEL / TENISAREN SARRERAK
<b>Personas abonadas</b>	GRATUITO DOHAIN	<b>Abonatuak</b>
<b>Personas no abonadas</b>		<b>Ez Abonatuak</b>
Individual Empadronado menores de 18 años	2,00 €	Banakakoa Erroldatua 18 urtetik beherakoa
Individual Empadronado mayores de 18 años	3,00 €	Banakakoa Erroldatua 18 urtetik gorakoa
Individual NO Empadronado menores de 18 años	4,00 €	Banakakoa EZ Erroldatua 18 urtetik beherakoa
Individual NO Empadronado mayores de 18 años	5,00 €	Banakakoa EZ Erroldatua 18 urtetik gorakoa
Jubilado/a Empadronado	2,00 €	Erretiratuta Erroldatua
Jubilado/a NO Empadronado	3,00 €	Erretiratuta EZ Erroldatua
RESERVA DE INSTALACIONES	€	INSTALAZIOAK ERRESERBATZEA
LAS PERSONAS NO ABONADAS AL EFECTUAR LA RESERVA DE ESTAS INSTALACIONES DEBERÁN DE ABONAR ASIMISMO LA TASA DE ENTRADA.		ABONATURIK EZ DAUDEN ERABILTZAILEEK HONAKO INSTALAZIO HAUEN ERRESERBA EGITEAN, SARRERAREN TASA ERE ORDAINDU BEHARKO DUTE.
<b>Padel / Tenis</b>		<b>Padela / Tenisa</b>
Por HORA	6,00 €	ORDUKO
Suplemento Luz, Por HORA	2,75 €	Argi Gehigarria, ORDUKO
SERVICIOS	€	ZERBITZUAK
Venta bote 3 pelotas Padel	4,80 €	Hiru padel-pilota salgai
Extravío o pérdida de carnet	5,00 €	Karneta berritzea
Venta de candados	5,00 €	Giltzarrapoa salgai
CURSOS DEPORTIVOS	€	KIROL-IKASTAROAK
<b>PADEL</b>		<b>PADELEKO IKASTAROA</b>
<b>MENSUAL</b>		<b>HILABETEKOA</b>
<b>Cursos de 50 minutos 2 sesiones/semana</b>		<b>Astean 50 minutuko bi saio</b>
Personas abonadas CLUB DE PADEL	25,00 €	PADEL TALDEKO Abonatuak
Personas NO abonadas CLUB DE PADEL	45,00 €	PADEL TALDEKO EZ Abonatuak

<b>PADEL/TENIS ABONAMENDU-MOTA</b>	<b>HILEKO ABONAMENDUA</b>
PADEL TALDEKO bazkidea + Leioan errolatua	25,00 euro.
PADEL TALDEKO bazkidea + Leioan EZ errolatua	35,00 euro.
<b>Bazkide-karnet bakoitzeko</b>	<b>3,00 euro.</b>
<b>Hilabeteko abonamendurako tarifa abonu-agiri bidez kobratuko da beti</b>	
<b>Txartela egiteagatikoko gastuak esku-dirutan ordaindu beharko dira</b>	

### IRAILEAN INDARREAN SARTUKO DIREN ZERGA-ORDENANTZAK:

#### 1. Soinu Atadia Fundazioa

**Soinu Atadia Fundazioko Kontseilu Errektoreak** bi mila eta hamaikako maiatzaren 20an egin zuen bileran 2011-2012rako prezio publikoak onartu zituen, eta jarraian idatzita daude:

2011-2012 ikasturtea	TASAK Tasas		MATRIKULA
	LEIOARREK Vecin@s de Leioa	KANPOTARREK No vecinos	GUZTIEK Todos
<b>UDAL MUSIKA ESKOLA – II. MAILA</b> Escuela de música - Nivel II			
MUSIKA-TERAPIA	211,82	-	43,18
HASTAPENA Iniciación	220,00	330,00	43,18
1.-2. MODULUAK Módulos 1º-2º	513,4	770,1	86,36
3.-4. SENDOTUA 3º-4º Reforzado	847,00	1.270,5	107,95
3.-4. MODULUAK Módulos 3º-4º	535,1	802,7	86,36
5.-6. MODULUAK Módulos 5º-6º	425,4	638,10	64,80

<b>MUSIKA ESKOLA - III. MAILA</b> Escuela de música - Nivel III			
1. MODULUTIK 6.ERA Módulos 1º al 6º	425,4	638,10	64,80

<b>LOE KONTSERBATORIOA</b> Conservatorio LOE			
1. -2. maila (Piano, Akord/Gitarra,Txistu)	1.322,4	1.322,4	149,04
1. -2. maila (Sinfonikoak)	1.431,3	1.431,3	172,82
3. -4. maila (Piano)	1.552,4	1.552,4	173,86
3. -4. maila (Akordeoi, Gitarra)	1.440,00	1.440,00	173,86

3. -4. maila (Sinfonikoak)	1.661,3	1.661,3	198,70
5. -6. maila (Sinfonikoak, Piano)	1.912,3	1.912,3	223,58
5. -6. maila (Akordeoi, Gitarra, Txistu)	1,759,1	1,759,1	223,58

## TASAK ORDAINTZEA

## PAGO DE TASAS

1. KONTSERBATORIOA (LOE) eta Musika Eskolako Ikastaro sendotuak.

1. CONSERVATORIO (LOE) y Cursos reforzados de la Escuela de Música.

• Tasak: 10 hileko.

• Tasas: 10 Mensualidades

• Epea: lehenengo ordainketa matrikula egitean (uztailaren 10etik 15era), eta azkena ekainean

• Plazo: la primera al formalizar la matrícula (del 10 al 15 de Julio) y la última en junio.

2. MODULUAK

2. MÓDULOS

• Tasak: 4 ordainketa

• Tasas: 4 pagos

• Epea: tasa guztien %10, matrikula egitean (uztailaren 10etik 15era); gainontzekoa urrian, urtarrilean eta apirilean.

• Plazo: el 10% del total de tasas al formalizar la matrícula (del 10 al 15 de Julio); el resto en octubre, enero y abril.

Musika Eskolan matrikula eginez gero, ekainera arteko irakaskuntza-kuota guztiak ordaindu beharko dira. Hilekoak nahiz hiruhilekoak, IKASKETAK zehar bertan behera utzita, INDEPENDIENTEMENTE ERE

La formalización de la matrícula en este Centro entraña la obligación de abonar, hasta el mes de Junio, la totalidad de las cuotas por enseñanza, sean mensuales o trimestrales, INDEPENDIENTEMENTE QUE SE ABANDONEN LOS ESTUDIOS A LO LARGO DEL CURSO.

MATRIKULA

MATRICULA

Ondorengoei dagokien zenbatekoa zuek adierazitako kontuan zordunduko dira zehaztutako datan (uztailaren 10etik 15era).

El importe correspondiente a los siguientes conceptos se cargará en la fecha señalada (10 al 15 de Julio) en la cuenta facilitada por ustedes.

Matrikulatzen den ikasketari dagokion matrikularen zenbatekoa.

El importe de la matrícula correspondiente al curso en que se matricula.

• Eskola-materiala (22 €).

• Material escolar (22 €).

• Tasen %10, ikasketaren arabera.

• 10% de las tasas, según el curso.

OHARRAK

OBSERVACIONES

Familia Ugariak matrikula erdia ordainduko dute; Las Familias Numerosas abonarán la mitad del horretarako, Familia Ugariaren liburuaren fotokopiainporte de matrícula; deberán presentar fotocopia eguneratua ekarri behar dute. actualizada del libro de Familia Numerosa.

MATRIKULAK EZ DU BALIORIK IZANGO, LA MATRÍCULA NO SERÁ EFECTIVA EN EL CASO BANKETXEAK IGORRITAKO ORDAINAGIRIA ITZULIZDE QUE SE PRODUZCA LA DEVOLUCIÓN DEL GERO. RECIBO GIRADO.

**Ogasunaren, Ondarearen eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honako gai hauei aldeko irizpena eman die:

- 1º 85. irizpenean adierazi den Zerga Ordenantzak aldatzeko eta ezartzeko proposamena onartzeari.
- 2º Behin-behineko akordioa 30 eguneko epean jendaurrean jakinarazteari. Interesdunek epe horretan espedientea aztertu eta egoki irizten dieten erreklamazioak jarri ahal izango dituzte. Kontuan hartu behar da, erreklamazioak aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen Akordioa behin betikotzat joko dela.
- 3º Egingo den lehen bileran gai hori Udalaren Osoko Bilkurari jakinarazteari, azter dezan.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez** erabaki du zerga-ordenantzen aldaketa eta 2011rako beste tarifa batzuk onartzea, Ogasunaren eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean agertzen diren baldintza berberetan.

**2.- LEIOA KIROLAK SAU SOZIETATEAREN DEFIZITA DELA ETA, AURREKONTUAK OREKATZEKO ESKAERA:** Ogasunaren, Ondarearen eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 102. zenbakidun irizpena, 2011ko maiatzaren 24koa, jakinarazi zaio Udalaren Osoko Bilkurari, hori berrets dezan. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde horretako buruak, adierazi du LEIOA KIROLAK SAU sozietateak eta Akziodunen Batzar Nagusiak 2011ko maiatzaren 20an egindako bileretan eta 2010eko urteko kontuak onartzean eskatu ziotela Udalari, bazkide bakarra den aldetik, galerak murrizteko laguntza, zehatz-mehatz, 200.000,00 euroko zenbatekoa. Hori EIBEX Asesores Consultores aholkularitza-zerbitzuak jakinarazitakoa kontuan hartuta egin zen.

PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazaresek adierazi du bere taldeak LEIOA KIROLAK SAU sozietatearekin izandako bileretan eman zuen gai horren gaineko boto bera emango duela, alegia, abstentzioa.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaizek ere adierazi du gai horren gainean abstenitu egingo dela, LEIOA KIROLAK SAU sozietatearekin izandako bileran egin zuen bezala.

**Ogasunaren, Ondarearen eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak, EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren, Batzorde horretako buruaren: EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrearen, EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbieto González andrearen, EAJ-PNVko Ainara Guzmán Urrutia andrearen, EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunaren** aldeko botoekin, onartu du LEIOA KIROLAK SAU sozietateari 200.000,00 euroko transferentzia egitea, 2010eko galerak orekatzeko, Kontseiluaren eta LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen arteko akordioak, gai horri buruzkoak, berretsita. PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jauna, PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jauna, PSE-EEko Luis María Pérez Pérez jauna, eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna abstenitu egin dira.

#### **EZTABAIDA:**

**PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunak** esandakoaren laburpena:

2011ko maiatzaren 20ko Akziodunen Batzarrean adierazitakoa idatziz errepika dadila eskatu nahi dut; eta, logikoa denez, taldeak abstenitzea erabaki du.

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURA**

Udalaren Osoko Bilkurak aldeko hamaika botoren gehiengoz (saioan parte hartu duten EAJ-PNVko bederatzi ordezkariarenak eta EB-Berdeak taldeko bi ordezkariarenak), eta zortzi abstentziorekin (PSE-EEko bost ordezkariarenak eta PPko hiru ordezkariarenak) Leioa Kirolak SAU sozietatearen defizitagatik eskatutako aurrekontuen oreka **onartzea erabaki du**, Ogasunaren, Ondarearen eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian proposatu den baldintza berberetan.

## **II. UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROL ETA JARRAIPENA**

**3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIAK 2011KO MAIATZAREN 12TIK 2011KO MAIATZAREN 25ERA.** Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan; eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, Bilkurako espedientean jaso dira epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak, azter ditzaten; eta, nolnahi ere, gero artxibatuko dira dagokien lekuan.

Udalaren Osoko Bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarrean onetsitako ebazpenen (espedientean jaso direnak) **berri izan du**.

### **4.- PRESAZKO MOZIOAK:**

Ez da presazko moziorik aurkeztu atal honetan.

### **5.- ESKAERAK ETA GALDERAK:**

#### **LEHEN GALDERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Honako batzorde hauetako baten bilera deituko ote den galdetu nahi dugu:

Kultura eta Kirol Batzordeari dagokionez, azkeneko bilera apirilaren 13an egin zuen, eta Sarrienako belar naturalezko futbol-zelaian mantentze-lanak egiten dituen enpresari buruzko gai bat erabakitzeke geratu zen. Gai horri buruzko erantzuna batzordeko bileran emango zela esan zen, baina harrezkero ez da gehiagorik egin. Kultura Batzordeari dagokionez, ez deritzogu egoki San Juan jaietarako egitaraua dekretuz onartu izanari, udal taldeok hobetzeko proposamenak aurkeztu ahal izango genituela uste baitugu.

Sustapen Ekonomikoko Batzordeari dagokionez, azkeneko bilera apirilaren 12an egin zuen. Saltokietan 2010ean eta 2011n egon diren altei eta bajei buruzko datuak eskatu genituen, baina ez dugu informazio hori jaso.

Azkenik, Barneko Araubideko Batzordeak otsailaren 22an egin zuen azkeneko bilera, duela hiru hilabete eta erdi. Horregatik, Udaleko langile batzuek egin dituzten erreklamazioak ezin izan dira aztertu. Gure ustez, denbora gehiegi igaro da batzorde horiek

azkeneko bilera egin zutenetik, eta horrek ez dio mesederik egiten Udaleko funtzionamenduari.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** esandakoaren laburpena:

Batzordeen bileretarako deialdiak eta erritmoak batzordeetako buruek zehazten dituzte; eta hartara, zentzuzkoa litzateke batzordeetako kideekin erabakitzea zein egunetan bilduko diren.

Laburbilduz, batzordeen bilerak egitea ala ez egitea zuen esku uzten dut.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Hemen zaudeten guztioi agur esan nahi dizuet; biltzar bat dela eta, ez bainaiz datorren Osoko Bilkuraren bileran egongo. Esker ona adierazi nahi dizuet lankidetzaz eta egindako lanagatik. Batzuetan nire alde eta beste batzuetan nire aurka bozkatu baduzue ere, dagoeneko ez du axola. Edonola ere, plazer handia izan da zuekin lan egitea. Era berean, nik esandakoak norbait inoiz molestatu edo mindu badu (politikan batzuetan horrela gertatzen baita), barkamena eskatzen dut. Jakina, edozer eskatu nahi baduzue, zuen esanetara naukazue Batzar Nagusietan ere, han, beti bezala, esan eta esan jardungo baitut. Leioarekin lotura duten gauza guztiei atsegina handiz jarraituko diet.

Alkate jaunak baimena ematen badit, opari txiki bat egingo dut. Azken berrogeita bost urteotan gertatutako guztiari begiratzea nire zaletasunetako bat da, eta aurkitu dudana perla hau ikustean poza hartuko duzu. Alkate jauna txikia zeneko argazki bat da. "Kilikili" aldizkarian dago, aldizkari horretako harpideduna baitzen. Argazki dibertigarria da benetan. Zure izena eta argazkia agertzen dira, eta poza hartuko duzulakoan nago. Horrela ziurtatu nahi dizuet zuek eta alkate jauna lehena estimatzen zaituztedala, nahiz eta batzuetan elkarri "egurra" eman eta politikoki borrokatu behar.

Eskerrik asko guztioi.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** esandakoaren laburpena:

Bihotz-bihotzez eskertzen dizut. Argazki horretan hogeita hamar urte eta berrogeita hamar kilo gutxiago ditut.

Udaletxean 1997. urtetik aritu zara lanean: zorionak, urte horienagatik eta egindako lanagatik, "lepondoko" batzuk jaso baditugu ere. Kanpaina honetan, esaterako, bi heldu zaizkigu, eta bati aurre egin diogu, eta besteari ere aurre egingo diogulakoan nago.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direla, Alkatez Udalburutzak ekitaldia bukatutzat jo du, eta idazkari honi agindu dio dagokion akta egiteko, adostutako baldintzetan onartu dena. Eta hori guztia, nik, behin-behineko idazkaria naizen honek, ziurtatzen dut.

OE  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA